



2021eko URTEKO MEMORIA

ETOLeren URTEKO MEMORIA

2021. URTEA

GASTEIZ, 2022ko URTARRILA.

ARGITARATZAILEA:


Euskadiko Okupazio-terapeuten Elkargo Profesionala-ETOLE.

EGILEAK:

ETOLE elkargoaren Kide Anitzeko Batzordea.

HELBIDEA:

*Euskadiko Okupazio-terapeuten Elkargo Profesionala
65 Posta-kutxa, Gasteiz, 01080
Telefono-zenbakia: 644 524 492
Helbide elektronikoa: info@etole.eus*



AURKIBIDEA

0. AURKEZPENA.....	5
1. EGITURA ETA FUNTZIONAMENDUA.....	6-7
Misioa.....	6
Ikuspegia.....	6
Gobernu-batzordea	6-7
.....	7
2. ELKARGOKIDEAK	8
1. ERANSKINA.....	18-19
3. DEFENTSA PROFESIONALA	9-11
4. INFORMAZIO- ETA ZEHAPEN-PROZEDURAK.	11
5. OKUPAZIO-TERAPIA EZAGUTZERA EMATEA ETA ZABALKUNDEA	
EGITEA.....	11-13
Bizkaiko Osasun Foroa.....	11
Haurren eta Nerabeen Arretarako Arloko Batzorde	
Iraunkorra.....	11
Eskuliburuak eta Txostenak	
.....	12
ETOLE elkargoaren komunikazioa eta informazioa	

transmititzea.....12

ETOLE sare sozialetan..... 12-13

6. LANKIDETZA ESTATU MAILAN 11-13

Okupazio-terapiako Elkargoen Kontseilu Orokorra13

Socinto 13

Lankidetza-hitzarmenak.....14


Beste jarduera
batzuk.....14

7. BIBLIOTEKA.....14

8. BATZAR OROKORRAREN ERABAKIAK
.....15

9. KUDEAKETA EKONOMIKOAREN URTEKO TXOSTENA
..... 16

10. ONDORIOAK..... 16-17



0. AURKEZPENA

2021. urtean, lehendik genituen lan-ildoekin jarraitu dugu: elkargokideei babesa eta euskarria ematea, gizartean Okupazio-terapiaren figuraren ezagupenen zabalkundea egitea eta ezagupenak eskaintzea, eta Euskadin lanbidearen hobekuntzak lortzen laguntzea.


Barne-mailan, eta eskuarki gertatzen ari den bezala, aldaketak izan dira ETOLeren batzordean zein lan-batzordeetan. Modu mailakatuan, irten egin dira kide batzuk, eta zaila izan da funtzio guztiak geure gain hartzea eta denera iristea, ez baita haien ordezkorik sartu. Hala ere, benetan eskerrak ematen dizkizuegu, Elkargoak behar bezala funtziona dezan jarri duzuen gogo eta energia guztiagatik. Pertsona hauek ahalegin guztia egin eta haien denbora baliotsua eskaini diote ETOLeren eta Okupazio-terapiaren aldeko lanari: Eskerrik asko!

Egia den arren erraza dela etsipenean erortzea, gure lanarekin jarraitu dugu eta, pixkanaka, figura berriak sartu dira, energiak berreskuratzen eta lanean jarraitzen lagundu diguten ilusio eta ideia berriak ekarri dizkigutenak.

Esan ohi dugun bezala, memoria batean ezin da islatu egunez egun egiten den lana, baina azkeneko hilabeteetako lorpenik garrantzitsuenen zein aurkitu ohi ditugun zailtasunen zertzelada batzuk eskaintzen dizkizuegu. Halaber, gure lana bertatik bertara ezagut dezazuen animatzen zaituztegu, guztion laguntzagatik izango ez balitz, ezinezkoa izango bailitzateke hau guztia. ETOLE guztiona eta guztiontzat da!

Agur t'erdi

Miren Valverde, ETOLEko lehendakaria.



1. EGITURA ETA FUNTZIONAMENDUA:

XEDEA

Euskadiko Okupazio-terapeuten Elkargo Profesionala (ETOLE) kideen lanbidea eta interesak ordezkatzeko eta defendatzeko helburuz sortu zen, euskal gizartearen eta Estatukoaren interes eta beharrekin bat etorriz, eta lanbide soziosanitario honen jardunbide ona sustatzeko helburuz, erabiltzaileek beren eguneroko zereginetan autonomia hobetu dezaten, bizitza independente, egoki eta produktiboa lortzeko bidean lagunduz.

IKUSPEGIA

a) Okupazio-terapiako profesionalaren jardun-esparru ezberdinetan dituen eginkizunen zabalkundea egitea: pertsonenganako eta haien osasun fisiko eta mentalarekiko jarduketak, zein autonomia-maila handiagoa eta bizitza-kalitate hobea lor dezan, haren ingurunera egokitzeko eginkizuna.

b) EAEko okupazio-terapeuten kolektiboa kohesionatzea. Tradizioz, kolektibo aktiboa da elkarteen esparruan, eta sektorearen barruan koordinazioa eta kohesioa sustatzen eta bultzatzen jarraitu nahi du elkargoak.

c) Profesionalen etengabeko prestakuntza sustatzea, zerbitzuen kalitatea hobetzea sustatuz.

GOBERNU-BATZORDEA

Memoria hau egin den unean, honako hauek osatzen dute Gobernu-batzordea:

- **Lehendakaritza:** Miren Valverde
- **Lehendakariordetza:** Erika Salagre
- **Idazkaritza:** Sara Martinez
- **Diru-zaintza:** Antonio Caridad
- **Biblioteka:** hutsik dago postua
- **Arabako probintzia-ordezkaritza:** Antonio Caridad / Maite Martinez

- **Gipuzkoako probintzia-ordezkaritza:** Ane Larrañaga
- **Bizkaiko probintzia-ordezkaritza:** hutsik dago postua.

Honako hau da 2021ean lanean jardun duen batzordeak:

- **Okupazio-terapia Promozionatzeko Batzordea:** Natalia Cean, Úrsula Merino, Erika Salagre.

Martxan jarraitzen duten, baina 2021ean jardunik izan ez duten batzordeak:

- **Bizkaiko trebakuntza-batzordea:** Nerea Gonzalez, Janire Ibarrondo, Maialen Perez, Leire Lopez.
- **Arabako trebakuntza-batzordea:** Henar Menéndez, Lorea Castillo, Raquel Ruiz, Leire Atiega, Nagore Salazar eta Maria Ricarte.


Badago SARE SOZIALEZ (facebook, instagram, twitter, linkedin) arduratzen den lan-talde bat ere, argitalpenak sortzen eta partekatzen dituenak: Antonio Caridad, Maite Martinez, Úrsula Merino.

2021eko ekitaldian, ez da proposatu lan-batzorde berririk abiarazteko edo aipatutako batzordeekin jarraitzeko jenderik.

ETOLEk bost talde-batzar presentzial egin ditu Gasteizen, ETOLeren egoitzan, askotariko gaiak lantzeko, eta agiriak eta batzar eta batzar orokorretarako gai-zerrendak prestatzeko. Horrekin batera, online formatuko 18 batzar egin dira, taldeko lana eguneratuta izateko. Horiez gain, beste batzar asko ere egin dira, baita ETOLEko lan-taldeekiko eta beste organismo batzuekiko koordinazio-lanak ere.

Estatutuak

Eusko Jaurlaritzaren esku dago, eta hark behin betikoz onetsi dezan zain gaude.




2. ELKARGOKIDEAK:

2021. urtean, 11 alta berri egon da (horietako hiru beste elkargo profesional batzuetatik ETOLEra etorri dira, eta bat elkargokide izandakoa da, eta berriro sartu da elkargoan) eta zazpi baja ere egon dira (horietako bi beste elkargo profesional batzuetara aldatu dira, baina elkargokidetza egoerari eutsiz). Halaber, bi pertsonak jakinarazi digute erretiroa hartu dutela, nahiz eta elkargoan jarraitzen duten eta elkargokide-zenbakia izaten jarraitzen duten, baina baldintza berezietan. Urte amaieran, 225 elkargokide zituen guztira ETOLEk (ikus 1. eranskina).

Elkargokideek ETOLEk antolatutako batzarretan izan duten parte-hartzeari dagokionez, hona hemen datuak:

Ohiko Batzarra 2021eko ekainaren 13an, bide telematikoz eta ETOLEren Egoitzan –Florida kaleko 40. Zenbakian– modu presentzialean: 20 elkargokide (horietako lau modu presentzialean, 11 modu telematikoan, eta beste bostak botoa eskuordetuta).



3. DEFENTSA PROFESIONALA

2021eko apirilaz geroztik, honako zerbitzu hauek gauzatu dira:

1. Elkargoaren estatutuak aldatzea. Horretarako, ondorengo jarduketak egin ziren:

a. EHAAn iragarkia argitaratzea

b. El Diario Vasco eta El Correo egunkarietan iragarkia argitaratzea

c. Aldaketa egiteko eskaera telematikoa

d. Eskaeraren egoerari buruzko erreklamazioa posta bidez eta, ondoren, aurrez aurreko hitzordua Zuzenean zerbitzuan, erreklamazioa egiteko. Oraindik horri buruzko berririk jaso gabe jarraitzen dugu.

2. Intrusismo kasuak:

a. Getxoko egoitza: Getxoko egoitzan Okupazio-terapiako departamentua itxi zutenean, Getxoko Udalarekin harremanetan jarri ginen eskutitz bidez; erantzun ziguten ezin zutela batere aldaketarik egin. Beranduago, Getxoko Podemos taldearekin jarri ginen harremanetan, ETOLEekin batera egin genitzakeen jarduketan inguruan hitz egiteko.

b. Abandoko egoitza: gutun ziurtatua bidali zien ETOLEk, egoitza horretan intrusismo kasu bat egon zitekeela ohartarazteko.

c. Atsobakar egoitza: gutun ziurtatua bidali zien ETOLEk, egoitza horretan intrusismo kasu bat egon zitekeela ohartarazteko.

d. Maskuribai egoitza: gutun ziurtatua bidali zien ETOLEk, egoitza horretan intrusismo kasu bat egon zitekeela ohartarazteko.

e. Purísima Concepción egoitza: gutun ziurtatua bidali zien ETOLEK, egoitza horretan intrusismo kasu bat egon zitekeela ohartarazteko. Erantzun zigun egoitza bakarra izan zen; adierazi ziguten ez zegoela inor egoitza horretan Okupazio-terapeuta lanean.

f. Tagore egoitza: gutun ziurtatua bidali zien ETOLEK, egoitza horretan intrusismo kasu bat egon zitekeela ohartarazteko.

g. Abeletxe egoitza: gutun ziurtatua bidali zien ETOLEK, egoitza horretan intrusismo kasu bat egon zitekeela ohartarazteko.

h. San Martin egoitza: gutun ziurtatua bidali zien ETOLEK, egoitza horretan intrusismo kasu bat egon zitekeela ohartarazteko.

i. Integral akademia: gutun ziurtatua bidali zien ETOLEK, haien webgunean iragartzen dituzten ikastaroetan intrusismo kasu bat egon zitekeela ohartarazteko, eta argitalpena berehala kentzeko. Aldatu dutela esan digute.

j. *Divulgación dinámica* ataria: gutun ziurtatua bidali zien ETOLEK, haien webgunean eskaintzen den ikastaroan intrusismo kasu bat egon zitekeela ohartarazteko.

k. LinkedIn-eko erabiltzaileak: LinkedIn-en, egiaztatzen duen titulaziorik izan gabe, Okupazio-terapeuta zerbitzuak eskaintzen dituzten erabiltzaileen inguruko gutun generikoa. Balizko intrusismo kasuak.

3. Alegazioak aurkeztu genizkion Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioari, geriatrikoetan zerbitzuen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari Goi-mailako Graduari dagokion Titulua ezartzen duen Errege Dekretu Proiektuari buruz.

4. Egoitzei buruzko Dekretua eta aldundiak: Elkarriketak izan ditugu foru aldundiekin bide ezberdinetatik, dagoeneko indarrean dagoen Egoitzei buruzko Dekretu berria aplikatzen ari al den erantzun dezaten. Oraindik “probaldian” dagoela eta egoitzetan dokumentazioak hausaz eskatzen dituztela diote. Ez dute erantzun argirik ematen.

5. Batzordea aldatzeko prozesua, Elkargoaren estatutuei jarraiki.

6. Lanbide: hainbat lan-eskaintza argitaratu da Lanbideren orrian Okupazio-terapeutak, baina gizarte-integrazioko eskakizunekin. Lanbiderekin harremanetan jarri ginen telefonoz, kexa aurkezteko, eta posta elektroniko bat bidali ziguten, eskaintzak kendu ditzaten edo eskainitako lanpostuari egokitzeko alda ditzaten erreklama genezan. Bide hori ukatu egin ziguten, baina, edo telematikoki egiteko birbideratu gintuzten, eta oraindik ez dugu erantzunik jaso.

4.-INFORMAZIO- ETA ZEHAPEN-PROZEDURAK.

Elkargoaren aholkularitza juridikoko zerbitzuaren babesarekin, lau informazio-prozedura ebatzi ditugu.

2021. ekitaldi honetan ez da zehapen-prozedurarik egin.

5. OKUPAZIO-TERAPIA EZAGUTZERA EMATEA ETA ZABALKUNDEA EGITEA

Bizkaiko Osasun Foroa.

Osasun Foroak ez du batzarrik deitu 2021ean.

Haurren eta Nerabeen Arretarako Arloko Batzorde Iraunkorra

Urriaren 13an egindako batzarrerako gonbidapena jaso zuen ETOLEk; ZOOM bidez egin zen.

Eskuliburuak eta Txostenak

- “Okupazio-terapia Geriatriaren arloan” agiriaren zabalkundea egin zuen Okupazio-terapiaren promoziorako batzordeak. Harrera ona eta oihartzuna izan du “adinekoen” sektorean. Baterako ekintzak egin dira, eta lanpostuak sortzea lortu da.
- CGCTOk Estatu mailan “Okupazio-terapia Hezkuntzaren arloan” agiriaren zabalkundea egiteko kronograma bidal diezagun zain jarraitzen dugu.

ETOLE elkargoaren komunikazioa eta informazioa transmititzea

2021. urteaz geroztik, ETOLE elkargoaren webgune berria sortu denetik, dagoeneko ez ditugu newsletterrak erabiltzen. Langileen saileko barne-mezuen eta -komunikazioen bitartez ari gara argitaratzen guztia. 16 sarrera egin ditugu, eta trebakuntzarako eskaintzen eta lan-eskaintzen 43 argitalpen, www.etoledon.com webgunean

Okupazio-terapiaren Eguna

Urriaren 27an, Okupazio-terapiaren mundu egunean, hainbat artikulua argitaratu ziren hiru probintzietako prentsa idatzian zein digitalean. Sare Sozialetan ere etengabeko presentzia izan zuen gaiak.

Okupazio-terapeuten ekitaldi baterako deialdia egin zen, egun hori ospatzeko eta ideiak eta esperientziak partekatzeko.



ETOLE sare sozialetan

2021ean, gure sare sozialak eguneratzen jarraitu dugu; gure elkargokideekin, beste okupazio-terapeuta batzuekin eta, oro har, jendearekin zuzeneko eta hurbileko harremana izateko modua dira sare sozialak. Horrez gain, gure diziplinaren zabalkundea egiteko tresna gisa erabiltzen saiatzen gara. Aurten, 78 argitalpen egin dira guztira.



Etole. Colegio Profesional de Terapeutas Ocupacionales del País Vasco

Twitter: 2.225 jarraitzaile, 2021eko abenduaren 31n. % 88,4 emakumeak, eta % 11,6 gizonak.



2021. urtean, Instagram eta LinkedIn sare sozialetako kontuekin jarraitu du ETOLEk



6. LANKIDETZA ESTATU MAILAN

Okupazio-terapiako Elkargoen Kontseilu Orokorra (CGCTO):

CGCTO kontseiluaren bi batzarretan hartu du parte ETOLEk 2021ean modu presentzialean (otsailean eta urrian), eta beste batzar batean modu telematikokoan (azaroan), eta batzar horietako aktetan jasotzen diren ildoak lantzen jarraitzen du.

Socinto:

2021ean, Socinto erakundearen bi batzar egin dira telematikoki, maiatzean eta azaroan.

Lankidetza-hitzarmenak:

Hitzarmen guztiak daude eguneratuta eta ikusgai webgunean.

BESTE JARDUERA BATZUK

Batzarra Neurobai egitasmoko arduradunekin: haien produktua aurkeztu ziguten, eta zerbitzuak eskaini gure elkargokideentzat.

Batzarra Euskadiko Arreta Goiztiarreko Profesionalen Elkartearekin (APATPV): baterako lanen koordinazioa.

Oteca (prestakuntza) erakundearekin batzarra: Proiektuak aurkeztea eta lankidetzarako proposamena.

Caronte web estudioarekin batzarrak eta koordinazioak: ETOLEren webgunea abian jartzea eta prestakuntza.

Osakidetza: Elkarriketak abiarazi ditugu, hurrengo oposizioak prestatzen laguntzeko. Telefono eta posta elektronikoko bidezko koordinazio-lanak egin ditugu, eta kolaborazioetarako kontaktuak eman.

TOP-es elkartearekin (Haurrei eta Nerabeei zuzendutako Okupazio-terapiaren Elkarte):

Proiektuak aurkeztea eta lankidetzarako proposamena, CGCTO kontseiluaren bitartez.

Batzarra, Arabako EAJren Osasun arloko arduradunekin: Batzar telematikoa egin genuen, ideiak eta proiektuak aurkeztu eta etorkizunean sor litezkeen aliantzen inguruan hitz egiteko.


7.-BIBLIOTEKA

Aurten liburutegi osoa aztertu dugu, eta liburu zaharkituak kendu. Aurten ez da liburu berririk erosi. Aleren bat duzuen begiratu eta, hala bada, liburutegi-zerbitzuarekin harremanetan jar zaitezten eskatzen dizuegu.

Bibliotekaren inguruko protokolo bat sortu dugu, liburuen erreserbak errazago kudeatzeko, eta guztien eskura jarri genuen; halaber, katalogoa zintzilikatu genuen, une hartan erreserbatutako liburuen berri ematen zuena.

8.- BATZARRAREN ERABAKIAK

2021eko ekainaren 13an formatu mistoan (telematikoki eta modu presentzialean) egindako ohiko batzarrean 4 lagunek hartu zuen parte modu presentzialean, hamarrek telematikoki, eta beste bost lagunek eskuordetu egin zuen botoa. Informazio gehiagorako, ikus 2021eko batzarreko akta.



9.-KUDEAKETA EKONOMIKOAREN URTEKO TXOSTENA

2021eko BALANTZE EKONOMIKOA

DIRU-SARRERAK. 29901,65€	
GASTUAK.	
Bulegoaren alokairua. 3.267€	-
Zerbitzu profesionalak 5.527,15€	-
Aseguru-primak. 6.249,60€	-
Banketxe-zerbitzuak 566,82€	-
Batzordearen gastuak 1.416,77€	-
Beste zerbitzu batzuk 3780,53€	-
Ikastaroen gastuak 0€	
Gastuak, guztira. 20.088,87€	-
AZKEN EMAITZA	9812,78€

10.- ONDORIOAK

Batzordekide garen aldetik, interesgarria iruditzen zaigu, amaitzeko, ohar batzuk egitea:

- Oso harrera ona izan zuen batzar orokorra online modalitatean antolatzeak. Eutsi egiten zaio horri.
- Okupazio-terapiari laguntzeko esku-hartze maila guztiak lortzeko, funtsezkoa izaten jarraitzen du Batzordea eta lan-batzordea osatuta egotea. Era horretan, oraindik ere hutsik daude postu batzuk (Bizkaiko ordezkaritza, kanpo-harremanak, sare sozialak, intrusismo-batzordea, prestakuntza-batzordea, etab.)
- Intrusismo-batzordea: Batzordeak jarraitzen du batzorde horren berezko eginkizun eta jarduketaz arduratzen, aholkularitza juridikoko zerbitzuaren laguntzarekin.
- Batzordea bere lana profesionalizatzeko saiakera egiten ari da, indarrean dagoen legerian oinarritutako jardute-protokolo xehatuagoak prestatuz, eta bide ofizialetatik, ETOLeren ikuspegia eta misioa kontuan hartuta.
- Partekatzen den informazio guztia eskuragarri dago, webguneko langileen arloaren atalaren bitartez.
- Gogorazten dizuegu Batzordea prest dagoela edozein zalantza argitzeko edo, besterik gabe, informazioa partekatzeko, laguntza eskaintzeko, etab. Guztiok gara eta guztiona da ETOLE!!!




1. Eranskina.


2021. URTEKO DATU-BILKETA

Kontuan izanda 2021eko elkargokide kopurua 225 lagunekoa izan dela, ETOLEren datu estatistikoak erakusten dizkizuegu jarraian, elkargokidetzei dagokienez.


ELKARGOKIDETZEAK	
ALTAK	11
BAJAK	7



ETOLEko ALTAK	
ALTAK	7
BESTE ELKARGO BATZUETATIK DATOZENAK	3
BERRIRO ELKARGOKIDE EGIN DIRENAK	1




ETOLEko BAJAK	
BAJAK	6




BESTE ELKARGO BATZUETARA JOAN DIRENAK	1
---	---

ADINA	
> 35 urte	76
35-44 urte	115
45-54 urte	21
55-64 urte	11
65-69 urte	2
> 70 urte	0



EREMU GEOGRAFIKOAK	
ARABA	62
BIZKAIA	86
GIPUZKOA	77



SEXUA	
GIZONAK	19
EMAKUMEAK	206

